

Lurzoruaren erabilera iraunkorra: babesaren eta laborantzaren artean



*Neure lur berdera itzuli nintzen
eta ez zegoen,
ez zegoen lurrik,
alde egin zuen.
Urak itsasorantz
eraman zuen (...)*

Pablo Neruda
Oda a la erosión (1956)

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

AGENDA 2030



 **GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**



Zer dakigu lurzoruari buruz?

Lurzorua Lurreko geruza emankorra da, azalekoena. Bertan, hain zuzen ere, basoak garatzen dira, eta laborantzak egiten ditugu.

Honako hauexek dira geruza horren osagaiak: mineralen nahasketa (harriak partikula finetan deskonposatzean sortutakoak), materia organikoa (landareak zein animaliak deskonposatzean sortutakoa), mikroorganismoak, ura eta airea.

Era askotako lurzorua daude euren osaketaren arabera, harriak, klima, landaretza... desberdinak direlako leku batean eta bestean.




2015

Lurzoruen
Nazioarteko Urtea
Bizitza osasuntsurako lur osasuntsuak

Nazio Batuetako Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundearen adierazpena (FAO).

Kontzientziaztea eta elikaduraren segurtasunari zein ekosistemaren funtsezko eginkizunei begira lurzorua zeinen garrantzitsua den ulertzea du helburu.

Zer da edafologia?



Edafologia lurzoru naturalaren osaketa, erabilera eta artapena aztertzen dituen zientzia da, eta, horretarako, landareak, animaliak eta ingurumena hartzen ditu kontuan.

Lurzorua osatzen duen geruza bakoitza "lurzoru-horizontea" da. Zenbat eta lodiagoak izan goiko geruzak, orduan eta handiagoa izango da biodibertsitatea; eta hobe, laborantzarako lurzorua.

Lurzoru helduaren lodiera zenbait zentimetrokoa edo zenbait metrokoa izango da.



Lurzorua, bizi-euskarria

Lurzorua hazteko aukera ematen die landareei, eta gizakien zein animalien elikagaia dira. Lurzorua, ordea, askoz gehiago da...

LURZORUAK PLANETAKO BIODIBERTSITATEARI EUSTEN DIO

Lurzoru osasungarrian (kutsagarri kimikorik gabean), hainbat eta hainbat animalia eta mikroorganismo daude. Lurzoruan bertan ere, euren gordelekuak egiten dituzte untxiek, saguek, satitsuek, satorrek... Horrez gain, ornogabe askoren bizilekua ere bada; esate baterako, lur-zizareak, inurriak eta akaroak. Era berean, ehunka onddo-espezie eta milaka bakterio-espezie ere badaude bertan.

Bazenekien...

...lurzoruko mikroorganismoen eta izaki bizidun txikien multzoari "edafoia" esaten zaiola? Izaki bizidun horiek oso garrantzitsuak dira, lurzoruaren egiturari eta kalitateari eutsi eta zaindu egiten dutelako: materia organikoa deskonposatzen dute, lurzorua oxigenatzen dute, landareentzat funtsezkoak diren elikagarrien zirkulazioa edo eskuragarritasuna sustatzen dute, landareen gaixotasunak edo intsektuen izarriak kontrolatzen laguntzen dute...

Koilarakada bat lurzorutan, Lurrean dauden biztanleak baino mikroorganismo gehiago daude.



Lurzorua, balio handi-handiko baliabide mugatua



Lurzoruaren erabilera historian

Nekazaritza Neolitoan hasi zenetik (K.a. duela 8.000 urte-edo), gizakion biziraupenerako baliabide nagusietakoa izan da lurzorua, elikagaiak ematen dizkigulako.

Edonola ere, urteen joan-etorrian, biztanleen kopuruak gora egin duen neurrian, lurzorua okupatzeko premiak areagotu dira, laborantza gehiago, etxebizitza gehiago, lantegi gehiago eta azpiegitura gehiago edukitzeko. Horrela, bada, landare-formazio naturalen gainazala murrizten ari da apurka-apurka.

Lurzorua honexetarako oinarria da...



EKOSISTEMAK, HAUEN ZERBITZUAK eta baliabide naturalak. Lurzoru aberatsa lurzoru anitza da.



NEKAZARITZA, landareentzako funtsezko elikagarriak eskaintzen dituelako.



ABELTZAINZA, ganaduaren garapenerako beharrezkoak diren bazkak eta pentsuak eskaintzen dizkigulako.



BASOGINTZA, lurzoruaren baldintzak, luraren malda eta maila freatikoa oso garrantzitsuak direlako baso-espezie egokiak aukeratzeko orduan.

Lurzoru osasungarria funtsezkoa da produktu osasuntsu bezain osasungarriak lortzeko

Eremu naturalak babestea ez da gutizia

Eremu naturaletan, interes ekologikoko basoak eta beste landare-formazio batzuk garatzen dira, eta, lurzorurik egon ezean, ezin izango litzateke halakorik sortu.

Eremu naturalek bizi-kalitatea ematen digute, baita ekologiarenekin zein ingurumenaren arloko onurak ere. Eremu horietan, biodibertsitate handia dago, eta ezagutzarako zein gozamenerako guneak ere badira.

Azken zuhaitza mozten dutenean, azken ibaia lehortzen denean, azken animalia harrapatzen dutenean, azken mendia suntsitzen denean bakarrik konturatuko gara ez dagoela dirua jaterik.

Indiako esaera zaharra



Eremu naturalak gizaki guztion ondarea dira, eta, planetako balio natural handieneko eremuak babesteko, mundu-mailan aitortutako zenbait babes-mekanismo daude.

Euskadin, Eremu Natural Babestuak interes ekologikoko zein geologikoko guneak dira, eta florako nahiz faunako era guztietako espezie bereizgarriak daude bertan. Eremu babestuak dira, bertako habitatak zein biodibertsitatea zaintzeko edota hobetzeko eta bertako bizilagunen garapen orekatu bezain iraunkorra bermatzeko.

Euskadiko lurraldearen %10,6 Babestutako Eremu Naturalen Sarearen barruan dago, eta, besteak beste, honako hauexek ditu osagai: Natura 2000 Sareko guneak, parke naturalak, babestutako biotopoak, zuhaitz bereizgarriak eta biosferaren erreserba. Eremu horietatik, 19 daude Bizkaian.



Euskadin, Biosferaren Erreserba bakarra dago, hau da,
Urdaibaiko Biosferaren Erreserba

Lurzoruaren erabilera iraunkorra: babesaren eta laborantzaren artean

Lurzoruaren erabilera edo larregizko erabilera?

Epe laburrean ahalik eta emankortasun handiena lortzeko asmoz lurzorua modu intentsibo eta estentsiboan erabiltzen bada, ingurumeneko arazo larriak sortu daitezke hain luzea ez den epean.

Giza eraginagatiko higadura

Higadura-faktore naturalak ez ezik, hau da, haizearen indarra edo euri-ura, giza eraginagatiko higadura ere hartu behar da kontuan. Deforestazioa, larregizko artzaintza edo malda handiko lurren laborantza dira higadura horren arrazoi nagusiak.



Kutsadura



Ongarri ez-organikoen, herbiziduen eta pestiziduen apurka-apurka kutsatzen dute lurzorua, eta ibai, laku zein lurpeko akuiferoetara iristen dira.

Klima lehorretan, gainera, lurrunketaren ondorioz, gero eta gatz gehiago daude lurzorian. Hori dela eta, baliteke luzaroan lurra ezertarako erabili ezin izatea.

Desertifikazioa

Landaretza naturala suntsitzen denean eta klima lehorretan urik ez dagoenean, lur emankorrak antzutzen dira.



Bazenekien ?

...zibilizazio mesopotamiarraren beheraldiaren arrazoi nagusietakoa lurzoruaren pixkanakako gaziketa izan zela?



HAUSNARTZEKO MODUKO ZENBAKIAK

- Gaur egun, desertifikazioak planetako lurzoruaren gainazalaren %30i baino gehiagori egiten dio kalte, Nazio Batuetako Ingurumen Programaren arabera (PNUMA).
- Lurzoruko 2.000 milioi hektarea, hau da, munduko gainazal kontinentalaren %15, suntsitu dira giza jardueren ondorioz (GEO-3n argitaratutakoa, 2002).
- Munduko basoetako 17 milioitik gora hektarea suntsitzen dira urtero.
- Munduko biztanleen %40k ez dute edateko urik.

Nola erabili lurzoria iraunkortasunez?

Neurri agroekologikoak

Nekazaritza biologikoa sustatzea, lurzoruaren emankortasuna zaintzeko eta ez kutsatzeko.

Apurka-apurka galtzen diren elikagarriak berreskuratzea eta, horretarako, simaurra zein konposta erabiltzea, hau da, materia organikoa eraldatzean lortutako ongarri naturala.

Lurzoruen kutsadura saihestea eta, horretarako, **izurri, gaixotasun eta belar txarren kontrol biologikoa** egitea.



Basogintzako jarduerak

Zuhaitzen edo sastraken **mozketa** eta larregizko lur-erazketak ekiditea.

Mendiak tokiko espezieen bidez **berritzea** eta espezie aloktonorik (eukaliptorik...) ez erabiltzea, biodibertsitatea areagotu ahal izateko.

Basoetako **sasitza garbitzea**, suteak prebenitzeko.



Zer da izurrien kontrol biologikoa?

Laborantzarako kaltegarriak diren zenbait organismo bizidunen (intsektuen, akaroen, onddoen...) agerpen handia kontrolatzeko, harrapakariak, bizkarroiak, barazkijaleak... erabiltzen dira, laborantzen kalterako ez direlako eta inguruneke oreka ekologikoa aldatzen ez dutelako. Hartara, nekazaritzako edo basogintzako ekoizpeneko galerak murriztu edo saihestu egiten dira.

Lurzorua zaintzen

Lurzorua baliabide natural sentikorra denez, erraz-erraz kutsatzen da. Landareen elikagaia da, eta animaliek landare horiek jaten dituzte. Guk lurzorutik jaten dugu zuzenean edo zeharka, frutak eta barazkiak edo landare horiek jan dituzten animaliak jaten ditugulako.

Zer egingo dut lurzorua babesteko?

Lurzorura ez bota ez disolbagarririk edo kutsagarriak

Ura lurzorian zehar iragazten denean, lurpeko uretara eramaten ditu kutsagarriak. Kutsadura lausoaz ari gara. Produktu horiek lurzorian bizi diren mikroorganismoak ere hiltzen dituzte.

Produktu ekologikoak kontsumitu

Nekazaritzan ongariak eta pestizidak luzaroan erabiltzen direnean, lurzorua kutsatu egiten da. Kutsadura geldoa den arren, hondagarria da epe luzeari begira.



Papera zentzuz erabili, zuhaitzen mozketara saihesteko

Zuhaitzen funtzioa oso garrantzitsua da, oxigenoaren ekoizle handiak dira-eta.



Basoetako suteak ekidin

Barbakoarik erabiliz gero, alde egitean sua ondo itzalita dagoela ziurtatu eta etengabe kontrolatu. Suteen %90 gizakiek sorrarazten dituzte, eta ezin kaltegarriagoak dira lurzoru bizidunarentzat.

“Lurzorua zaintzen baduzu, gainerakoa berez zainduko da”

Nekazarien esaera zaharra

i

Gehiago jakiteko

Informazio interesgarria

- ↳ Bizkaiko Foru Aldundia. Ondare naturala.
- ↳ Bizkaiko Foru Aldundia. Landareak Babesteko Zentroa.
- ↳ Lurzorua: Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila.
- ↳ Lurzoruak. Ihobe.
- ↳ Lurzoruaren Kutsaduraren aurkako Prebentzio Neurriak Zehazteko Gida Teknikoa. Ihobe.
- ↳ Hazi. Landa-ingurunearen, itsasertzaren eta elikagaien garapena.
- ↳ Nazio Batuetako Ingurumen Programa.
- ↳ Bizkaiko Foru Aldundia. Basoetako suteak.
- ↳ Basoetako suteak. Greenpeace.
- ↳ Lurzoruen Nazioarteko Urtea. FAO.

Arautegia

- ↳ Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.
- ↳ Euskadiko Lurzoruaren Kutsadura Prebenitzeko eta Zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea.
- ↳ Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.



Lurzoruak ez gaitu behar ...
...baina guk lurzoru behar dugu.